

MUNDUKO TXAPELKETA. Iruñean ezin izanen dutela jokatu salatu nahi dute antolatzaileek

Euskal selekzioko pilotariak hainbat herritan ariko dira, bost jaialditan

Belatek eta Iparraldeko pilotariak antolatu dute ekimena, euren eskubideak aldarrikatzeko



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Euskadiko Federazioko, Belateko eta Iparraldeko pilotarien ordezkariak, atzoko agerraldian.

E. Elizondo | IRUÑEA

Munduko Txapelketatik kanpo utzi dute Euskal Herriko pilota selekzioa; ez da Labriten edo Lizarrako pilotaleku berrian izanen, bai, ordea, beste hainbat herritako pilotalekuetan, Belate elkarteak eta Iparraldeko Pilotarien Koordinaketak antolatutako jaialdi sortaren eskutik. Jaialdi horien bidez euskal selekzioak nazioartean lehiatzeko duen eskubidea aldarrikatu nahi dute antolatzaileek. Horretarako, selekzioko kideen arte-

ko partidak egingen dituzte, bai eta Iparralde eta Hegoaldeko hainbat pilotari profesionalen aurkako norgehiagokak ere.

Ekimen horren aurkezpenean, azken hilabeteotan Euskal Herrian selekzioaren alde egin diren urratsak azpimarratu zituen Ellande Alfaro pilotari eta Iparraldeko Pilotarien Koordinaketako kideak, atzo, Iruñean. «Lortu da gaia gizarteratzea; gu ez gaude ez Frantziako ez Espainiako selekzioen aurka, gurearen alde baizik; borondate politiko falta da ara-

zoaren gako», azaldu zuen Alfaro.

Tristetzat jo zuen munduko txapelketatik at gelditu izana euskal selekzioa, eta «egoera salatu beharra» dagoela gaineratu zuen. Ildo horretan, hilaren 31n, txapelketaren azken egunean, Iruñean egingen den manifestazioan parte hartzeko deia egin zuen. 18:00etan hasi-ko da Labriten.

Euskadiko Pilota Federazioak bat egin du Belatek eta Iparraldeko pilotariak antolatu ekimenarekin, elkarte horretako

EGITARAUA

SENPEREN, HILAREN 24AN

18:00etan: Trinketea, eskuz binaka, euskal selekzioko bi kide bi pilotari profesionalen kontra; xare; eta paleta larruz.

ZARAUTZEN, HILAREN 24AN

22:30etan: Ezker paretan, paleta larruz, pala motza eta joko garbia.

MUTRIKUN, HILAREN 25EAN

18:00etan: Pilotaleku luzean, zesta-punta eta pala jaialdia.

ELIZONDON, HILAREN 29AN

18:00etan: Trinketea, paleta goma (neska eta mutilak) eta eskuz banaka.

LEKEITION, HILAREN 30EAN

18:00etan: Paxaka; eskuz banaka eta binaka.

ko buru Txema Aldamiz-Etxebarriak atzo azpimarratu zuen. Federazioko kideak, halaber, hilaren 26an Nazioarteko Pilota Federazioak Iruñean egingen duen batzarra izan zuen mintzagai. «Euskal Herriko selekzioaren parte-hartzeak mesede handia egingen lioke pilotari, kirol mailari dagokionez negargarriak baitira munduko txapelketak. Batzarrean ahalik eta laguntza gehien lortzen saiatuko gara, estatutuak aldatu eta euskal selekzioari ateak zabaldu ahal izateko».

TXOKOAN



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Egiguren, eta Enbil, atzean.

ZESTA-PUNTA

Egiguren eta Enbilek irabazi dute Kontinente Artekoaren txapelketa

Mikel Egiguren eta Enbil dira Kontinente Artekoaren txapeldun berriak, atzo Gernikan jokatu zen finalean Andoni Arriaga eta Jon Arriagari 35-19 irabazi ostean. Hasieran partida nahiko parekatua suertatu zen. Hala ere, 13nako berdinketatik aurrera, nagusi izan ziren Egiguren eta Enbil.

ESKU-HUSKA

Titin eta Zezeaga Goñitarrei nagusitu zitzaizen Tafallan

Titin eta Zezeagak erraz, 22-8, irabazi zuten atzo Tafallan jokatu zen jaialdian Mikel Goñi eta Fernando Goñiri. Zezeaga oso seguru aritu zen atzean, eta huts bakarra egin zuen partida osoan. Titinek ere ederki jokatu zuen, eta sei tanto egin zituen sakez. Bero zen atzo Tafallan, bana hala ere, jendez gainezka izan zen pilotalekua.

JAIALDIAK

ATZOKO EMAITZAK TAFALLA.

Galarza V.a-Auxkin 06; Gonzalez-Arroyo II.a 22. Titin III.a-Zezeaga 22; Goñi II.a-Goñi III.a 08.

GALARRETA.

Juaristi-Barrenetxea III.a 35; Uterga-Lander 17. Altuna I.a-Aizpuru 33; Iñigo-Etxabe 40. Matxin-Txikuri 28; Agirresarobe-Auzmendi 40.

GERNIKA.

Beaskoetxea-Alberdi III.a 22; Konpa-Iriondo 30. *Kontinente Artekoaren finala:* Egiguren II.a-Enbil 35; A. Arriaga-J. Arriaga 19. Goikoetxea-Goitia 20; Bereikua-Barrondo 30.

GAURKO PARTIDAK TAFALLA. 19:30.

Beloki II.a-Begino / Azpiroz-Pinedo. Unanue-Barriola / Olaizola II.a-Pascual.

GOMARA (Soria). 18:00.

Mikel-Almandoz / Amarike IV.a-Galarza IV.a. Etxaniz II.a-Errendonea III.a / Otaegi-Marin II.a.

DONIBANE-LOHIZUNE. 22:00.

Goixerri-Felix / Goikoetxea-Elizegi.

BATASUNA

«Munduko Txapelketa ez da ongi etorria izanen Nafarroan»

Ion Orzaiz / IRUÑEA. Batasunak lotsagarritzat eta onartezintzat jo zuen Munduko Pilota Txapelketan euskal selekzioren ez egotea Iruñean. Shanti Kiroga Nafarroako parlamentariaren esanetan, «oso larria da Euskal Herrian hain garatua dagoen kirol baten mundiala gure hiriburuan ospatzea, eta euskal selekzioren ez egotea». Horregatik, «txapelketa hau ez da ongi etorria izanen Euskal Herriko hiriburuan», Batasuneko legebiltzarkidearen iritziz.

Hala ere, harrera honek kirolariarekin zertikurik ez duela azpimarratu zuen Kirogak. «Kirolari bakoitzak eskubidea dauka

bere herriaren izenean parte hartzeko, baina euskal herritarren kasuan ez da hori gertatzen, eta onartezina da. Gu, behintzat, ez gaude prest hori onartzeko».

Honekin batera, Euskal Herria beste herrien pare jartzeko beharra nabarmendu zuen parlamentariak. «Euskal Herria ez da beste edozein nazio baino gehiago, baina gutxiago ere ez du izan behar. Horregatik, gure eskubideak aldarrikatzen ditugu, batez ere hain gurea den kirol honetan Euskal Herriak parte hartu ezin badu».

Kiroga estatutuari buruz ere aritu zen, eta horretarako EAEko lehendakari Juan Jose Ibarretxeren hitzak ekarri zituen gogora: «Ibarretxek esan zuen Euskal Herriak bere selekzioa izango zuela, horrela nahi izanez gero. Denbora asko igaro da hori agindu zigunetik, eta hemen ez dugu ezer ikusten. Berak esan bezala, euskal gi-